


**Goi Mailako
Lanbide
Heziketa**

**Fabrikazio
mekanikoa**

Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko goi mailako teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



**Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza**
El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

**UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA**

Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko goi mailako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Mekanizazio, konformazio eta muntaketa mekanikoko produkzioa

- Fabrikazio mekanikoko sistema automatizatuak programatzea.
- Fabrikazio mekanikoko produkzioa gainbegiratzea.
- Fabrikazio mekanikoko mekanizazio prozesuak definitzea.
- Fabrikazio mekanikoko konformazio prozesuak definitzea.
- Fabrikazio mekanikoko muntaketa prozesuak definitzea.
- Mekanizazio eta konformazio mekanikoko makinetan edo sistemetan zenbakizko kontrol konputerizatua (CNC) programatzea.

Fabrikazio mekanikoko produkzioaren kudeaketa, ondoko gaitasun unitate hauek biltzen dituenak

- Fabrikazio mekanikoko produkzioa programatu eta kontrolatzea.
- Fabrikazio mekanikoko produkzio prozesuak hornitzea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek metalak eraldatzen dituzten industrietan egiten du lan, hain zuzen ere makina eta ekipamendu mekanikoak, material eta ekipamendu elektriko, elektroniko eta optikoak eta industria sektoreko garraio materialak fabrikatzen dituzten azpisektoreetan.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Mekanikoko teknikaria.
- Metalak prozesatzeko instalazioen arduraduna.
- Metalak lantzeko makinetako operadoreen arduraduna.
- Muntatzaileen arduraduna.
- CNCko programatzailea.
- Fabrikazio mekanikoko sistema automatizatuen programatzailea.
- Produkzioaren programatzailea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Interpretazio grafikoa.
- Mekanizazio, konformazio eta muntaketa prozesuen definizioa.
- Zenbakizko kontrol bidezko mekanizazioa.
- Fabrikazio prozesuen gauzatzea.
- Enpresa eta ekimena.
- Ingelesa I.
- Ordenagailuz lagundutako fabrikazioa (CAM).
- Fabrikazio mekanikoko sistema automatikoen programazioa.
- Produkzioaren programazioa.
- Kalitatearen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumen babesaren kudeaketa.
- Produktuen egiaztapena.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Produktu mekanikoak fabrikatzeko proiektua.
- Lantokietako prestakuntza.